

DONOSTIA LAGUNKOIAREN INGURUKO MOZIOA

Olaia Duarte Lopez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016ko maiatzaren 16ean Pertsonentzako Zerbitzuen batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Donostia Lagunkoia Udalak bultzatutako plan bat da eta bi asmo nagusi ditu: Donostiako adinduen errealitatea agerraraztea eta balioestea, batetik, eta pertsona hauek hiriko bizitzan bete-betean parte har dezaten aukerak sustatzea, bestetik.

Plan honek adinduak gizarte bizitza eta hiriko dinamiketan presente egotea eta haien parte hartzea sustatzen du. Bere barnean biltzen ditu hainbat proiektu eta jarduera, helburu orokortzat adinduen bizi kalitatea hobetzea dutenak, adinduek herritar bezala duten ahalmena baliatuz.

Helburu orokor horretatik eratorritik dira helburu zehatz hauek:

- Adinduak eta haien elkarteak ahalduntzea, parte hartzeko prozesuen bitartez udal politiketan eragiteko. Izan ere, proiektuaren bultzatzaile eta gauzatzaile dira, eta horrela herritar bezala duten eragina baliatuko da.
- Giza taldeen —pertsona zaharren, gazteen...— eta hiriko eragileen arteko lankidetzaren parte hartzeko prozesuan, bereziki belaunaldi arteko harremanak eta ezagueraren transmisioa indartuz. Gizartea sentiberatzea zahartze aktiboaren garrantziaz eta adinduek komunitatearentzat duten balioaz; zahartzearen alde onak ikustaraztea.
- Sail arteko lankidetzaren eta parte hartzeko prozesuaren esperientzia hori baliatzea, hainbat esparrutan proiektuak bideratzeko.

Helburu hauek garatzeko Donostia Lagunkoia Hiri Planaren dokumentua taxutzen parte hartu dute adinduek, haiei lotutako antolakundeek, enpresek, elkarteek, erakundeek eta udal sailletako arduradunek. Horiek guztiek gogoeta, eztabaida eta eraikuntza kolektiboko ariketa batean lan egin zuten aurreko legegintzaldian, Donostian datozen urteetan aurrera eramane beharrezko gaiak, helburuak, estrategiak eta ekintzak identifikatuz, gure hiria toki lagunkoiagoa egite aldera.

Prozesu aberasgarri eta parte-hartzaile hau egiteko, Partaidetza Sailak bi mekanismo finkatu zituen: Egiaztatze eta Baliozkotze Taldea eta lan-kolektiboaren jardunaldi irekia.

